

opusdei.org

Bibliako audioliburu bat argitaratu dute

Proiektu honek, testu biblikoa formatu eskuragarriago bat lortu nahi du

2021 Mar 25

Nafarroako Unibertsitateak Bibliako audioliburu bat egin du. Ia ehun orduko grabazioan, entzuleek Eskritura Santuen eduki guztia entzun dezakete.

Horrela, Itun Zaharreko eta Berriko pasarteak entzun daitezke paseatzen, kirola egiten, janaria prestatzen edo

beste edozein jarduera egiten den bitartean, garraio publikoan mugitzen garen bitartean, etab. Audio-formatu berri horrek ikusmen-urritasunen bat edo irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen Biblia ezagutzeko erreztasuna ematen die.

“Bertsio honek ikusle guztiengana iritsi nahi du, pasarte guztiak kontatzeaz arduratu diren grabazioko hiru profesionalen ahotsen bidez. Biblia erraz entzutea eskaini nahi dugu. Audiolibroak liburuen eta kapituluaren arabera indizea du, bilaketa azkarra ahalbidetzen duena. EUNSAren liburutegi birtualaren bidez eskura daiteke streaming bidez”, dio Javier Balibrea Nafarroako Unibertsitateko argitaletxeko zuzendariak.

“Liburu erlijiosoa izateaz gain, Bibliak oso leku garrantzitsua betetzen du literaturaren eta, oro

har, kulturaren historian. 5.000 milioi kopia baino gehiago zabaldu izanak bere garrantziaz hitz egiten du. Horregatik, gaur egun, audiolibroak literatura unibertsaleko hainbeste lan, pertsonen eskura jartzen dituenean, Kixote edo Dickens edo Borges lan batzuk entzun ditzakegunean, Biblia formatu horretan izatea oso egokia da”, azaldu du Juan Chapak, Unibertsitateko Teologia Fakultateko irakasleak.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/nafarroako-
unibertsitateak-bibliako-audioliburu-
bat-argitaratu-du/](https://opusdei.org/eu-es/article/nafarroako-unibertsitateak-bibliako-audioliburu-bat-argitaratu-du/) (2026 Mar 10)